

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

Ebazpena: R 8/2012

Espedientea: 16/2009

Donostian, 2012ko uztailaren 2an

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada lehendakari jaunak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunek osatuak, honako

ERABAKIA

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren aurrean, 1 ENTITATEA (IFZ) dela-eta, Estatuko Zerga Administrazioko Agentziak burututako jardueretan Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen eskumenen inguruan planteatutako gatazkari buruz. Gatazka hori 16/2009 espediente zenbakiaz tramitatzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu zuen 2009ko azaroaren 18an. Idatzi hori egun horretan bertan erregistratu zen Arbitraje Batzorde honetan. Idatzian adierazten denez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzetako Departamentuak jakin zuen Estatuko Zerga Administrazioko Agentziak (EZAA) jarduera batzuk abiaraziak zituela 1 ENTITATEA (IFZ) (aurrerantzean 1 ENTITATEA) dela-eta, 2 ENTITATEAn (IFZ) (aurrerantzean 2 ENTITATEA) eta 3 ENTITATEAn (IFZ) (aurrerantzean 3 ENTITATEA) zerga alorreko eraginak izan ditzakeen merkatuko balio arrunta baloratzeko; izan ere, azken bi entitate horien jarduerak ikuskatzeko eskumena baitu Gipuzkoako Foru Ogasunak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

Gatazka planteatzeko idatzian jasotakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Ogasunak aipatutako prozedura horien berri izan zuen une beretik aurrera, honako jarduerak burutu ziren:

- Gipuzkoako Foru Ogasunak, 2009ko urtarrilaren 14ko idatziaren bitartez, aipatutako jarduera horiek koordinatzea eta espedienteen kopiak bidaltzeko eskatu zion EZAAri.
- Zerga Agentziaren Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkarri Bereziak, 2009ko abuztuaren 3ko idatziaren bitartez, EZAAren Finantzak eta Zergak Ikuskatzeko Ordezkaritzaren erantzuna bidali zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzetako Departamentuari, honek egindako eskaera ezesten zuen idatzia, hain zuzen.
- Urriaren 5eko 790/2009 Foru Aginduaren bitartez, 1 ENTITATEAri buruz hasitako prozeduretan alde bakarretik jarduteko eskumenean atzera egiteko eskatu zitzaion Estatuko Administrazioari, foru agindua egun berean jakinarazita.
- EZAAren Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkarri Bereziak, 2009ko azaroaren 4ko idatziaren bitartez, Estatuko Administrazioak aurreko errekerimendu hori errefusatu izana jakinarazi zuen.
- Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak, 2009ko azaroaren 17ko bilkuran, orain aztergai den gatazka planteatzea erabaki zuen.

2. Arbitraje Batzordeak, 2010eko abenduaren 20ko bilkuran, gatazka hau tramitatzeko onartzea erabaki zuen. Gatazkaren aurkezpena Estatuko Administrazioari jakinarazita, eta hau alegazioak aurkezteko epaturik, 2007ko abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren indarrez onartutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudian (EIABA) xedatutakoari jarraituz, EZAAk izapide hori bideratu egin zuen 2011ko otsailaren 9ko idatziaren bitartez, eta idatzi hori hilaren 11n erregistratu zen Arbitraje Batzordean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

3. Espedientearen instrukzioa amaiturik, eta espedientea gatazkan sartutako administrazioei agerian jarri ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen 2011ko maiatzaren 27ko idatziaren bitartez, eta idatzi hori 2011ko ekainaren 1ean erregistratu zen Arbitraje Batzordean. EZAAk ez zuen erabili zegokion eskubidea.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka aurkezteko idatzian, gatazkaren administrazio sustatzaileak zera eskatu zion Arbitraje Batzorde honi “ebazpen bat emateko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzetako Departamentua Estatuko Administrazioarekin modu partekatu eta koordinatuan jarduteko eskumendun aitortuz, Zerga Agentziak (EZAA), 1 ENTITATEA (IFZ) dela-eta, 2 ENTITATEAn (IFZ) eta 3 ENTITATEAn (IFZ) zerga alorreko eraginak izan ditzakeen merkatuko balio arrunta baloratzeko xedez hasitako prozeduretan; izan ere, entitate horien jarduerak ikuskatzeko eskumena baitu Gipuzkoako Foru Ogasunak. Eta ondorioz, Estatuko Administrazioa prozedura horietan alde bakarretik jarduteko eskugabea dela aitortzeko”. Bestetik, EZAAk, alegazioen idatzian (1. ZO), honela definitu zuen auziaren helburua “Gipuzkoako Foru Aldundiak parte har dezakeen ala ez zehaztea, 1 ENTITATEAren eragiketa lotuak direla-eta, EZAAk burututako ikuskatze prozeduran”.

Horrela bada, gatazkan parte hartzen duten Administrazioen artean funtsezko kointzidentzia bat dago gatazkaren helburuari dagokionez: zehaztu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak eskubidea duen ala ez, 1 ENTITATEAren eragiketa lotuen merkatuko balioa egiaztatze xedez EZAAk burututako ikuskatze prozeduran, betiere prozedura horretatik ondorioztatzen den balioa Gipuzkoako Foru Ogasunari alde bakarretik ezarri ez diezaion, entitate hari lotuak dauden 2 ENTITATEA eta 3 ENTITATEA sozietateei dagokienez; izan ere, sozietate horiek ikuskatzeko eskumena baitu Foru Ogasunak. Beraz, auzia ez du bultzatu Gipuzkoako Foru Aldundiak ikuskapen jarduera jakin batzuk egiteko duen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

eskumenak, nahiz eta honek bere eskaera nola egin duen ikusita, halakorik ondoriozta daitekeen, eskaera hori azaldutako moduan interpretatu behar baita. EZA Ak arrazoa du, hortaz, bere idatzian (2. ZO) honako baieztapena egiten duenean: “gatazka honetan auzitan dagoena ez da Estatuko Administrazioak 1 ENTITATEaren eragiketa lotuak ikuskatzeko eskumena baduen ala ez; baizik eta, eskumen hori aitortutik, auzia zeharo bestelakoa baita: ikuskatze lan horietan parte hartzea eskatzen da”. Azken batean, bada, hemen auzitan dagoena ez da eskumen kontua, prozedura kontua baizik: izan ere, garbi dago, bere alegazioetan jasotakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren jarduera horiek, edozein kasutan ere, bere eskuduntzaren esparruan garatu beharko liratekeela.

2. Gatazkaren helburua horrela definiturik, EZA Ak dio Arbitraje Batzordea eskugabea dela, eta horrek, gatazka onartezina egiten duela bere iritziz. EZA Aren iritziz, auzi hau azaldutako baldintzetan aurkeztuta, ez da sartzen Ekonomia Itunaren 66. artikulua organo horri esleitzen dion zeregin bat berean ere; ez eta, a fortiori, EIABAren 11. artikulua esleitutako eginkizunetan ere. EZA Ak dioenez, hasteko, “ukitutako Administrazioek eragiketa jakin baten balorazioan azaldutako desadostasun soila, berez ez da gatazkaren helburu bat, Itunaren 66. artikulua horretan xedatutakoaren arabera”; baina, jakina, arrazoibide hori hutsala da, auzia bultzatu duena ez baita desadostasun hori.

Gatazkaren benetako helburua, aurreko Zuzenbidezko Oinarrian azaldutakoa, EZA Aren iritziz ez da sartzen EIABAren 11. artikuluan aipatutako kasu bat berean ere, eta “bereziki ez da sartzen artikulua horren a) letran aipatutako kasuan, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskugabetasun Adierazpenaren Seigarren Kontsiderazioan alegatutako kasuan, ez eta Itunaren 66. artikuluan xedatutakoan ere”. EZA Ak Gipuzkoako Foru Aldundiak 2009ko urriaren 5ean egindako idatzia aipatzen du, Estatuko Administrazioaren inhibizioa eskatzen duena “[1 ENTITATEA] zergapekoa dela-eta, alde bakarretik hasitako prozedurei dagokienez, [2

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

ENTITATEA] eta [3 ENTITATEA] sozietateekin zerga alorreko ondorioak izan ditzakeen merkatuko balio arruntaren balorazioa egiteko ...". Gipuzkoako Foru Aldundiak, idatzi horren seigarren kontsiderazioan, EIABAren 11. artikularen a) letran aurreikusitako kasua aipatzen du; horren arabera, Foru Aldundiek gatazka sustatu ahal izango dute "Ekonomia Itunean jasotako arauen aplikazioa dela-eta, beren burua eskuduntzat jotzen dutenean tributu jakin baten kudeaketari, likidazioari, bilketari, ikuskapenari edo berrikuspenari dagokionez, baldin eta tributu haiei buruz Estatuko edo Autonomia Erkidego bateko Administrazioa eginkizun horiek egikaritzen ari bada edo egikaritu baditu".

Gainera, EZAAREN iritziz, Foru Aldundiak gatazka jartzerakoan aurkeztutako dokumentazioa ikusita ondorioztatzen denez, honen jarduera ez dator bat Autonomia Erkidegoekiko Finantzak Koordinatzeko Zuzendaritzari bidalitako idatzian jasotako adierazpenekin. Idatzi hori, berez, ez zuen aurkeztu gatazka jartzeko idatziarekin batera, baizik eta EZAAREN alegazioen idatziari erantsitako dokumentazioan ageri da: 2009ko urriaren 9ko data daraman idatzi bat da, sinadurarik eta jatorri-adierazpenik gabea, honako izenburu hau daramana "Ikuskatzeko eskuduntza desberdinen pean dauden subjektu pasiboen arteko eragiketa lotuetan merkatuko balioa egiaztatzeko xedez Zerga Agentziak bere aldetik bakarrik hasitako jardueraren ondorioz sortutako egoera Ekonomia Ituneko Araugintza Koordinatzeko Batzordeari jakinaraztearen komenigarritasunari buruzko oharra". Idatzi hori Eusko Jaurlaritzako Zerga Administrazioako zuzendariak ofizio baten bitartez bidali zion Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Erakundeekin Finantzak Koordinatzeko zuzendariari. Horretan aipatzen denez, idatzia Gipuzkoako Foru Ogasuneko ordezkariak aurkeztu zuen Euskadiko Zergak Koordinatzeko Organoan, eta honek, Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Erakundeekin Finantzak Koordinatzeko Zuzendaritzari bidaltzea erabaki zuen.

EZAAREN ohartarazten duenaren arabera, aipatutako idatzian adierazten denez "ez dago planteatu den kasua bezalakoetan batera jarduteko prozedura arauturik", eta gainera, "Estatuko araudiak ez du aurreikusi ere egin aipatutako egoera bezalakorik

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

gerta litekeenik. Foru araudiak bai, aurreikusten du halakorik, baina ez du finkatu horrelakoetan jarraitu beharreko prozedurarik”. Idatzi horretan adierazten denez, halaber, “Ekonomia Itunak jarduteko eskumen espezifikoak esleitzen dizkio Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari, aztertutako kasuaren azpian dagoen gaiarekin lotutako kasuetan”.

EZAk ondorioztatu duenez, “Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arbitraje Batzordea ez den organo bati zuzentzen badio eskaera, inplizituki Batzorde horren eskumena baztertzen ari da, hain zuzen ere ez Ekonomia Itunean eta ez Batzordearen eskumenak eta funtzionamendua arautzen dituen Erregelamenduan aurreikusitako gatazka bat delako; beraz, kasu honetan Batzordea eskugabea da, honek azter lezakeen helbururik ez dagoelako”.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2011ko maiatzaren 27ko bigarren alegazioetan, “inkongruentziaren” argudioaren aurka adierazten duenez, Finantzak Koordinatzeko Zuzendaritzari bidalitako idatziaren helburua, gatazkak erabakitzeko prozedura orokor bat ezartzen saiatzea izan da, esku-artearen dugun gatazkaren antzekoak “etorkizunean” sortzen direnerako; eta bien bitartean, Arbitraje Batzordeari dagokio sor litezkeen gatazka zehatzak erabakitzeko eskumena.

EZAk gaineratzen duenez, azkenik, “Itunaren 4. artikulua eta 30/1992 Legearen 4. artikulua gogora ekarriz aipatzen duen Administrazioen arteko lankidetzaren printzipio hori ez da –modu abstraktuan– Arbitraje Batzordearen aurrean gatazkak erabakitzeko prozedurara jota benetan gauza daitekeen printzipio bat”.

3. Arbitraje Batzordea ez dator bat EZAekin, gatazka honen berri izateko eskumenik ez duela esaten duenean; hortaz, ezta onargarritasunari buruz diogonarekin ere. Aitzitik, Batzordearen iritziz, auzi hau bete-betean sar liteke Ekonomia Itunaren 66. artikulua b) letran behar bezain zabal adierazita dauden baldintzetan. Letra horren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizuna da "banako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

tributu-harremanetako arazo zehatzetan Ekonomia Ituna interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auzien berri izatea". Garbi dago, kasu honetan Estatuko Administrazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean gatazka bat dagoela Ekonomia Itunaren aplikazioaren inguruan; eta gatazkak kasu jakin bat ukitzen duela, hain zuzen ere, EZAAk 1 ENTITATEAri buruz gauzatutako jarduerak izan ditzakeen ondorioak, entitate horrekin lotuak dauden 2 ENTITATEAn eta 3 ENTITATEAn. Arbitraje Batzordearen eskumenari buruz EIABAK ezarritako xedapenak Ekonomia Itunaren argitan interpretatu behar dira; eta, edozein kasutan ere, garbi dago Ituneko xedapenak Araudiko xedapenen gainetik lehenetsi behar direla, azken hauek xedapen haien helmena murrizten duten neurrian. Beraz, baztertu egiten dugu EZAAk Arbitraje Batzordearen eskugabetasunari buruz eta gatazkaren onartezintasunari buruz adierazitakoa.

4. Gatazkaren mamiari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak segidan aipatuko ditugun arauak ekarri ditu gogora, bere tesiaren euskarri gisa. Hala ere, oro har, soil-soilik transkribatu egin ditu, inolako iruzkinik gabe:

- Ekonomia Itunaren 4.Hiru artikulua:

“Estatuak eta lurralde historikoen, zergak kudeatu, ikuskatu eta biltze aldera eskumenez dagozkien zereginak betetzen dituzten bitartean, zerga horiek hobeto ordainarazteko beharrezkoak zaizkien datu eta aurrekari guztiak emango dizkiote elkarri, behar diren garaian eta eran”.

- Ekonomia Itunaren 19. artikulua, Sozietateen gaineko Zerga ikuskatzeari buruzkoa:

19. artikulua. Zergaren ikuskapena

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

Bat. Subjektu pasiboak Euskadin badu zerga-egoitza, lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak egingo du Zergaren ikuskapena.

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa bada, eta eragiketa guztien % 75 edo gehiago lurralde erkidean egina bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da.

Halaber, zerga egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak egingo du, baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan, eta eragiketa guztiak euskal lurraldean eginak badira.

Bi. Ikuskapenak egiteko lanetan, eskumena duen administrazioako arauak bete beharko dira, aurreko idatzi-zatian ezarritakoaren arabera. Gainerako administrazioek lagundu egin diezaiokete eskumena daukan administrazioari.

Ikuskapen-lan horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-lan horiek egin dituen administrazioak kobratu edo itzuliko du. Dagozkion konpentsazioak gero emango dizkiote bata besteari, beharrezkoa bada. Eskumena daukan administrazioako organo ikuskatzaileek beren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

Hiru. Aurreko idatzi-zatian xedatutakoak ezin ditu murriztu foru aldundiek beren lurraldeetan egiaztapenak eta ikerketak egiteko dituzten eskumenak. Baina foru aldundien jarduera horiek ez dute, administrazio organo eskudunen jardueren ondorioz egindako behin betiko likidazioak direla-eta, inolako ondorio ekonomikorik izango zergadunengan.

Lau. Administrazio eskudunak egiaztapenetan zehaztutako proportzioak kitatutako betebeharrei dagokienean ere bete beharko ditu subjektu pasiboak. Horrek ez du esan nahi bi administrazioen artean behin betiko onartzen direnak bete behar ez direnik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

- 2004ko martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen (SZL) testu bateratuak 16.1.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta testu berbera duen Sozietateen gaineko Zergaren Gipuzkoako lurralde historikoko 7/1996 Foru Arauak, (Gipuzkoako SZFA), uztailaren 4koak, zenbaki berdineko artikuluan ezarritakoari jarraituz:

“Zerga Administrazioak egiaztatu ahal izango du pertsona edo entitate lotuen artean egindako eragiketak merkatuko ohiko balioaren arabera baloratu direla. Behar izanez gero, eskumena izango du Zerga honi lotutako eragiketetan bidezko balorazio-zuzenketak egiteko (...).

Administrazioaren balorazioak ez du berarekin ekarriko ez zerga honetan, eta hala bada, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, eragiketa burutu duten pertsona edo entitate guztientzat eragiketan benetan lortutakotik gorako errentaren gaineko zerga ordaintzea (...).

- SZLaren eta Gipuzkoako SZFAren 16.9 artikulua diotenez, gauza bera xedatzen baita bi arauetan, “Likidazioan jasotako balorazioa irmo bilakatzeak, eraginkortasuna eta irmotasuna emango dizkio merkatuko balioari, gainerako pertsona edo entitateen aurrean”.

- Gipuzkoako SZFAren 16.9 artikuluko e) letra:

“Lotutako beste alderdiak egindako eragiketak merkatuko balio normalaren arabera baloratzeko eskumena beste Zerga Administrazio bati dagokionean, administrazio horri prozedura hasi izanaren berri emango zaio bidezkoak diren ondorioetarako”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

- SZLaren eta Gipuzkoako SZFAren 16.7 artikulua haxe xedatzen dute, testu berberarekin:

“Subjektu pasiboek Zerga Administrazioari eskatu diezaiokete pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak balora ditzala horiek burutu aurretik. Eskaerari merkatuko balio normalean oinarritutako proposamena erantsiko zaio.

Zerga Administrazioak akordioak izenpetu ahal izango ditu beste administrazio batzuekin, eragiketen merkatuko balio normala elkarrekin finkatzeko”.

Gipuzkoako Foru Aldundiak gaineratzen duenaren arabera, eragiketak burutu aurretik balorazioa adosteko aukerak, eragiketak burutu ostean egiten diren egiaztapen lanetara ere iritsi beharko luke.

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten duenez, azkenik, Estatuko Administrazioak berak, foru aldundiak egindako inhibizio-eskaerari emandako erantzunean, “gatazka honetan planteatu den kasua bezalakoetan, modu partekatuan eta koordinatuan jarduteko premia onartzen du inplizituki, irtenbide “arautzailea” ematea proposatuz. Eta Administrazio honek etorkizunari begira irtenbide horrekin ados egoteak, berori erabakitzen ez den bitartean behintzat ez du saihesten aipagai dugun gatazka bezalakoak izatea, hau da, adostasunezko erabaki bat eskatzen duten gatazkek sortzea.

5. EZAk, Gipuzkoako Foru Aldundiak erakutsitako alegazioen aurrean, segidan azalduko ditugun argudioak adierazi zituen 2011ko otsailaren 9ko idatzian. EZAk adierazten duenez, kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela ukatzen 1 ENTITATEA ikuskatzeko eskumena EZARI dagokiola, eta kontuan hartuta Ekonomia Itunaren 19. artikularen Bi apartatuan ezarritakoaren arabera, ikuskapen-lanetan Administrazio eskudunaren arauak bete behar direla, kasu honetan estatuko arauak aztertu behar ditugu, arau horietan ezarritakoaren arabera 1 ENTITATEAren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

eragiketa lotuak ikuskatzeko lanetan Foru Aldundiak parte har dezakeen ala ez zehazteko. Planteamendu hori garatzeko, EZAAk honako arauak aipatu ditu:

- SZLaren 16.9.1. artikulua:

“Balioaren egiaztapena, zerga-egoera egiaztatu behar zaion zergapekoari buruz hasitako prozeduraren barruan egingo da. Hurrengo paragrafoan xedatutakoa baldintzatu gabe, jarduketak zergapeko horri zuzenduta egongo dira, ez beste inori”.

Arau horretatik ondorioztatzen denez, EZAAren iritziz, “ikuskatzeko prozesuan zehar, eragiketaren balioa zehazteko prozeduran esku har dezakeen subjektu bakarra, egiaztatu beharreko zergapekoa bera da”.

- SZLaren 16.9.2. artikulua:

“Zergapekoari likidazioa egin bazaio balioa zuzentzearen ondorioz, eta zergapekoak likidazio haren aurka errekurtsio edo erreklamazioa aurkezten edo perituen tasazio kontrajarria eskatzen bada, zirkunstantzia horren berri emango zaie eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei, prozeduran agertu eta bidezko alegazioak aurkez ditzaten.

Ezarritako epeak amaitu eta zergapekoak ez bada errekurtsio edo erreklamaziorik aurkeztu, edo perituen tasazioa eskatu gabe badago, balorazioa jakinaraziko zaie eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei, nahi izanez gero, perituen tasazioa elkarrekin sustatu edo bidezko errekurtsio edo erreklamazioa batera aurkezteko. Errekurtsio edo erreklamazioa jartzen bada, edo perituen tasazio kontrajarria sustatuz gero, etenda geratuko da Zerga Administrazioak zergapekoari likidazioak egiteko duen eskubidearen preskripzio epea, eta Administrazioaren balorazioa irmo bihurtzen denean hasiko da berriro konputatzen”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

- SZLaren 16.9.4. artikulua:

“Balioaren zuzenketagatik eraginda gertatzen diren pertsona edo entitate lotuei apartatu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, baldin eta Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak, edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen establezimendu iraunkorrak badira”.

EZAAREN iritziz, arestian aipatutako artikulua horietatik “ondorioztatzen da, balorazio-espeditentea bukatzean eragindako entitate lotuei berorren berri emateko obligazioa badago ere, obligazio hori 16.9.4. artikuluan xedatutakoaren mende dagoela, eta aipamen hori lurralde erkidegoko araudiari lotuta egin behar dela, arauak argi eta garbi xedatzen duen moduan. Baldin eta eragindako entitatea ez bada lurralde erkideko zergaduna, SZLAN ezarritako araudia ez da aplikagarria. Espeditentearen berri emateko obligazio hori, EZAAK Sozietateen gaineko Zergan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edota Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan bere eskumenak erabil ditzakeen subjektu pasiboekiko bakarrik bete behar da; eta kasu honetan ez da horrelakorik gertatzen”.

EZAAK ondorio gisa adierazten duenez, “gaur egun indarrean dauden arauekin ezin da onartu Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako eskaera, hau da, 1 ENTITATEAREN eragiketak egiaztatzeke espeditentetan parte hartzea”.

EZAAK gaineratzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundia ere ondorio horretara iritsi da; izan ere, auzitan dagoen gaiari buruzko araudi espezifikorik ez dagoela esaten baitu behin eta berriro, eta “Foru Aldundiaren asmoarekin aurrera egin ahal izateko, arau aldaketa bat beharko litzateke, lankidetzaren edo parte-hartze hori nola burutu edo nola egituratu jakiteko berariazko erregulazio bat beharko litzateke. Baina, jakina, hori ezin du Batzordeak egin, eta ez dago Batzordeak eskaera hori onartzeko arau

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

esparrurik ere, nahiz eta bestelako bideak erabil daitezkeen –gatazka honetatik kanpo, jakina–".

6. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko maiatzaren 27an aurkeztutako alegazioen bigarren idatzian azaldutako argudioak hauek dira, laburbilduta: eragiketa lotuak baloratu ahal izateko aintzat hartu behar dira Administrazio desberdinei lotutako zergapeko guzti-guztiak; Ekonomia Itunak egoera hau ez duela aurreikusten aitortzen du; eta Administrazio bakoitzari ikuskapen-lanak egiteko berariaz dagokion eskumenak, gatazka hau eztabaidatzea eskatzen duela; izan ere, Administrazio batek egindako balorazioaren ondorioek distortsioak eragiten baititu beste Administrazio batek entitate lotu baten aurrean egin beharreko ikuskapen-lanetan. Ondoren adierazten duenez, Arbitraje Batzordeak araudiaren hutsuneak bete ditzake Itunaren printzipioetan oinarrituta; eta Zergaren araudiak berak ere xede horretarako elementu baliagarriak eman ditzake; esate baterako, administrazio desberdinei eragiten dieten aldez aurreko balorazio-akordioak lortzeko aukera. Azkenik, BEZaren saldoei buruzko gatazketan Batzorde honek berak eman izan dituen ebazpenak aipatzen ditu.

7. SZLaren 16.1.1 artikulua eragiketa lotuen tributazioari buruzko funtsezko printzipioa jasotzen du, honakoa ezartzean "pertsona edo entitate lotuen artean egindako eragiketak merkatuko ohiko balioaren arabera baloratu dira". Printzipio hori lehen-lehenik nazioartean finkatu zen, estatu berekoak ez diren entitate lotuen kasuan oinarri ezargarria entitate horien artean banatzeko irizpide gisa. Gaztelaniaz normalean "erabateko eskumenaren printzipioa" izenaz ezagutzen den printzipio horren helburua zerga-iruzurra borrokatzea ez bada ere, printzipio horri jarraitzeak eragotzi egiten du sozietate multzoetan etekina tratamendu fiskal onuragarriena jasoko duen lekuan ezartzea, beste estatu batean egozteko eskubide legitimoaren kaltetan. Horregatik, espainiar legeria, hasiera batean, entitate lotuek bere eragiketei esleitutako balorazioak zerga espainiarren gutxitzea eragiten zuenean bakarrik interesatzen zen printzipio horretaz. Hain zuzen, 1995eko abenduaren 27ko 43/1995

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

legearen 16.1 artikulua xedatutakoaren arabera –indarrean dagoen SZLaren zenbaki berdineko jatorrizko idazkeran bezalaxe–, eragiketa lotuak merkatuko balio arruntaren arabera baloratu ahal izateko “adostutako balorazioak, Espainian, merkatuko balio arrunta aplikatuta edota tributazioa geroratuta ondorioztatuko zen kopurua baino zerga-ordainketa txikiagoa zehaztu behar zuen, betiere pertsona edo entitate lotu guztiak aintzat hartuta”. Gaur egun indarrean dagoen eta 2006ko azaroaren 20ko 36/2006 Legetik datorren SZLaren 16.1 artikuluan, barne esparru osora zabaldu da erabateko eskumenaren printzipioaren aplikazio eremua.

“Transferentzia-prezioak” erabateko eskumenaren printzipiora egokitzeko xedez zuzentzeak, zergapetze bikoitza sortzen du, baldin eta zuzenketa horren (“lehen mailako doikuntza”) ondorioz, entitate lotu batean zergapetutako irabazi handiena, beste entitate lotu bati ere egozten bazaio. Horregatik, doikuntza horrek alde bikoia izan behar du; hau da, lehen mailako doikuntza horren ondoren, zenbateko bereko beste zuzenketa bat (“doikuntza korrelatiboa”) egin behar da eragiketaren beste aldean. Erabateko eskumenaren printzipio horren funtsezko ondorioa SZLaren 16.1.2 artikuluan finkatua dago; hau da, “Administrazioaren balorazioak ez du berarekin ekarriko ez zerga honetan, eta hala bada, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, eragiketa burutu duten pertsona edo entitate guztientzat eragiketaren benetan lortutakotik gorako errentaren gaineko zerga ordaintzea”.

Nazioartean, doikuntzaren alde bikoitasun hori zehatz-mehatz ezarrita dago, besteak beste, ELGAren Errentaren eta Ondarearen gaineko Zerga Itunaren Ereduko 9. artikulua 2. apartatuan. Horren arabera, gainera, kasuan kasuko doikuntza lortzeko “estatu kontratatzaileetako agintari eskudunek elkar kontsultatuko dute, beharrezkoa denean”.

Hortaz, alde bikoitasunak ez du esan nahi estatu batek finkatutako transferentzia-prezioa beste estatuak pasiboki onartu behar duenik. Ereduaren 9. artikulua 11.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

paragrafoaren iruzkinean adierazten denez, estatu kontratatzaileen artean doikuntza horri buruz desadostasuna sortzen bada, Ereduaren beraren 25. artikuluan aurreikusitako adiskidetasunezko prozedurara joko da. Europar Batasunaren esparruan indarrean dago enpresa lotuen etekinak zuzenduz gero zergapetze bikoitza ezabatzeari buruzko Ituna (90/436/EEE, 1990eko uztailaren 23koa), xede horri begira, adiskidetasunezko prozedura bat jarraitzea aurreikusten duena. Eta, bide horretatik adostasunik lortu ezean, arbitraje prozedurara jotzea aurreikusten du, honetan ematen den ebazpena ezartzeko, azkenean, estatu interesatuei. ELGAREN Ereduaren 25. artikulua 2008. urtean aldatu zenean, halaber, arbitraje fase bat sartu zen artikulua horretan araututako adiskidetasunezko prozeduran.

Esan behar dugu Espainiako Zuzenbidean, bai zergapetze bikoitzeko Itunetan ELGAREN Ereduari jarraituz ezarritako adiskidetasunezko prozedurako barne alderdiak, eta bai Europako Arbitraje Itunekoak, zuzeneko zergapetze gaitan jarraitu beharreko adiskidetasunezko prozeduren Erregelamenduan (2008ko azaroaren 3ko 1794/2008 Errege Dekretuaren bitartez onartua) arautuak daudela.

Transferentzia-prezioak zuzentzearen ondoriozko alde biko doikuntzei buruz arestian egin ditugun aipamen labur horietatik, honako ondorioa atera behar dugu: nazioarteko arauak doikuntza horiek egiteko premia ezartzen dute zorrotasun osoz, eta doikuntza horiek egiteari buruz estatuen artean sortzen diren desadostasunak erabakitzeko, adiskidetasunezko prozedura aurreikusten dute, beharrezkoa denean ondoren arbitraje fasera pasatzeko. Adiskidetasunezko prozedura, izenak adierazten duen bezala, prozedura oso malgua eta gutxi formalizatua da, eta esku hartzen duten estatuetako agintari eskudunen arteko komunikazio arinean oinarritua dago funtsean. ELGAREN Ereduaren 25.2 artikulua honakoa ezartzen du soil-soilik: arazoa aurkeztu zaion agintari eskudunak "ahal duen guztia egingo du arazoa beste estatu kontratatzaileko agintari eskudunarekin adiskidetasunezko akordio bat lortuta konpontzeko, Itunarekin bat ez datorren zergapetzerik gerta ez dadin". Eta Adiskidetasunezko Prozeduren Erregelamenduko 9.4 artikulua soil-soilik xedatzen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

du "agintari eskudunek, akordio bat lortzen saiatzeko beharrezkoak diren [akordio] proposamen guztiak trukatu dituzte beren artean".

8. Gatazka hau bultzatu duena honela definitu dugu 1. Zuzenbidezko Oinarrian: Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion "parte hartzeko" eskubidea, 1 ENTITATEA dela-eta, eragiketa lotuen merkatuko balioa egiaztatzeko EZAak burutu duen prozeduran. Alabaina, helburu hori gehiago zehaztu behar da; izan ere, Aldundia bezalako erakunde administratibo batez ari garela, "parte hartze" hitzak halako anbiguitasun bat du, kontzeptu horretan jardura mota desberdinak sar baitaitezke, esate baterako, prozeduran gauzatzen diren eginkizun administratiboetan parte hartzea, prozedura horretan alde interesduna izatea, edota soil-soilik, informazioa trukatea eta Aldundiari kontsultatu edo entzutea. Parte hartzeko azken modalitate hori da, hain justu, administrazio desberdinek egindako transferentzia-prezioen doikuntzen ezaugarrietara hobekien moldatzen dena, eta nazioartean gai honi buruz aplikatzeko ezarritako dauden adiskidetasunezko prozeduretan aurreikusten dena. Era honetako prozedurekin lortu nahi dena zera da, prezio horiek erabateko eskumenaren printzipioari jarraituz zehaztetik etorritako doikuntzei buruz sortzen diren desadostasunak, gutxienez elkarriketaren bitartez eta estatu interesatuen artean informazioa trukatzuz konpontzen saiatzea.

Bada, gure iritziz badago behar beste arrazoi Gipuzkoako Foru Aldundiari era horretako parte hartzea –nazioartean adiskidetasunezko prozedura ezaugarri gisa deskribatu dugun parte-hartzea– onartu behar zaiola pentsatzeko; hau da, administrazioen artean informazioa trukatu behar dela, alegia, eragiketa lotuen baloraziotik etorritako doikuntzak gauzatzearen inguruan sor daitezkeen desadostasunak fede onez konpontzen saiatzeko.

Arrazoi horietan lehenengoa eta funtsezkoa da, nazioartean elkar kontsultatzeko eta eragiketa lotuen doikuntzari buruz sortutako desadostasunak elkarrekiko akordioaz konpontzen saiatzeko obligazioa ezarri bazaie estatuei, obligazio horrek are gehiago

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

izan behar duela estatu baten barruan, eta ondorioz, antolamendu juridiko beraren barruan. Izan ere, antolamendu horren aplikazio esparruan ez litzateke onargarria izango Administrazio batek gai honetan hartzen dituen erabakiak beste Administrazioari ezbairik gabe ezartzea, administrazio hau bi hautabide hauetakoren bat aukeratu beharrean geratuko bailitzateke: lehenengo Administrazioak burututako balorazio-zuzenketa onartu eta bidezko doikuntza kopuru berean egitea, zergapetze bikoitza saihesteko; edo bestela, eragiketa lotuen balorazioa bere aldetik egitea, zergapetze bikoitza sortzeko arriskua eraginez. Zergapetze bikoitz horrek argi eta garbi urratu egingo luke bai SZLaren eta bai Gipuzkoako SZFAren 16.1.2 artikuluan ezarritako debekua; eta honen aplikazio esparrua ez da mugatzen administrazio baten eta bestearen eskumenen esparrura.

Eragiketa lotuen balorazioan interesatuak dauden Administrazioek, ezarpen bikoitza saihesteko, beren jarrerak informazioa trukatzuz eta elkarrizketa erabiliz hurbiltzen saiatzeko premiaren jatorria Ekonomia Itunaren printzipio orokorretan dago ezbairik gabe. Izan ere, itun horren helburu nagusia, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoen finantza eta zerga alorreko eskumenak modu harmonizatuan egikaritzea da, eskumen partekatuak egikaritzetik herritarrentzako kalterik etor ez dadin. Printzipio nagusi horiek Ekonomia Itunaren 2. artikuluan ageri dira batez ere. Hauxe ezartzen du hirugarren printzipio gisa “Estatuarekiko koordinazioa, zerga-sistemen harmonizazioa eta lankidetzaren sustatzea, Ekonomia Itun honetako arauak betez”. Koordinazioa eta lankidetzaren, jakina, bi aldeetarantz bete behar dira.

Lankidetzaren printzipioa Ekonomia Itunaren 4. artikuluan garatua dago. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aipatzen duen artikulua horretako Hiru atalean ezarritakoaren arabera, Estatuak eta lurralde historikoek, zergak kudeatu, ikuskatu eta biltze aldera eskumenez dagozkien zereginak betetzen dituzten bitartean, zerga horiek hobeto ordainarazteko beharrezkoak zaizkien datu eta aurrekari guztiak emango dizkiote elkarri. Eta honakoa eransten du:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

“Hain justu, administrazio batak eta besteak:

a) Beharrezkoa duten informazio guztia emango diote elkarri, datuak prozesatzeko zentroen bitartez. Horretarako, behar den komunikazio teknikoak abiaraziko dute.

Urtero, zerga mailako informatika-plan koordinatua egingo dute elkarrekin”.

Agindu hori ez dago, soil-soilik, nazioartean adiskidetasunezko prozedura batek berezkoa duen informazio trukaketara zuzendua –hau da, administrazio interesatuen arteko elkarrizketarekin batera ematen den informazioa–, baizik eta Administrazio hartzailearen berariazko prozeduran erabiltzera bideratutako informazioaz ari da. Alabaina, agindu hori Administrazioen arteko lankidetzaren printzipiorik orokorrenaren adierazpena da. SZLaren eta Gipuzkoako SZFAren 19. Bi artikulua ere printzipio hori bera aipatzen du Sozietateen gaineko Zerga ikuskatzeari dagokionez.

Koordinazio eta lankidetzaren printzipioen adierazpena da, halaber, Gipuzkoako SZJAren 16.9 artikulua e) letran xedatutako araua, Gipuzkoako Foru Aldundiak gogora ekarri duena. Arau horren arabera, beste alderdiak egindako eragiketaren gaineko eskumena beste Zerga Administrazio bati dagokionean, administrazio horri prozedura hasi izanaren berri emango zaio “bidezkoak diren ondorioetarako”. Zoritxarrez estatuko araudian parekorik ez duen agindu hori bat dator transferentzia-prezioei buruzko nazioarteko arauekin; eta hauen helburu nagusia, ikusi dugun moduan, Estatu interesatuetako Administrazioen arteko lankidetzaren printzipioa da.

Gauza bera esan daiteke eragiketa lotuak baloratzeko alde aurreko akordioak –SZLaren eta Gipuzkoako SZFAren 16.7 artikuluan aipatutako akordioak– lortzeko aukerari dagokionez ere (nazioartean APA bezala ezagutzen direnak, hau da, ingelesezko *advance pricing agreements* izenaren laburduraz), beste Zerga Administrazioek parte hartzen dutenean. Artikulu hori, 2004ko uztailaren 30eko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

1777/2004 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 29 *quater* artikuluan eta hurrengoetan garatua dago estatu esparruan. Gipuzkoako Foru Aldundiak bestelakorik badio ere, arau horretatik ezin da ondorioztatu, zuzenean, eragiketa lotuak baloratzeko akordioak lortzeko aukera; baina gai honetan Administrazioen artean bete behar den lankidetzaren printzipioaren beste adierazpen bat da, ez bairik gabe.

9. EZAak baztertu egin du “Gipuzkoako Foru Aldundiak 1 ENTITATEAREN eragiketa lotuak ikuskatzeko lanetan parte hartzea”, egiaztapen hori erregulatzen duten estatuko arauak halako parte-hartzerik ez dutela onartzen esanda. EZAren esanetan, SZLaren 16.9.1 artikulua xedatutakoaren arabera, eragiketa baloratzeko prozeduran esku har dezakeen subjektu bakarra, egiaztatu beharreko zergapekoa bera da. EZAak, bestetik, SZLaren 16.9.2 artikulua transkribatu du, eta artikulua horren arabera, zergapekoari likidazioa egin bazaio balioa zuzentzearen ondorioz, eta zergapekoak likidazio haren aurka errekurso edo erreklamazioa aurkezten edo perituen tasazio kontrajarria eskatzen badu, zirkunstantzia horren berri emango zaie eraginda dauden gainerako pertsona edo entitate lotuei, zergapekoa agertu ezean, prozeduran ager daitezten. EZAak, azkenik, SZLaren 16.9.4 artikulua aipatzen du, eta artikulua horren arabera, parte hartzeko aukera hori soil-soilik Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak, edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen establezimendu iraunkorrak diren eta eraginda gertatzen diren pertsona edo entitate lotuei aplikatuko zaie. EZAren iritziz, agindu horretan aipatzen diren zergak estatuko araudiak erregulatutakoak dira; beraz, jakinarazteko obligazioa zerga horien subjektu pasiboak direnekin bakarrik bete behar da, betiere EZAak bere eskumenak horiengan erabil baditzake.

Errekurtso edo erreklamazioak aurkeztu izana, edo perituen tasazio kontrajarria eskatu izana, edo halakorik aurkeztu edo hasi ez izana jakinarazteko obligazioa erregimen erkideko subjektu pasiboak diren entitate lotuei mugatzea –EZAak dioen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

moduan– zuzena izan ala ez (eta hori ez dugu hemen aztertuko) EZAAk bere argudioak azaltzerakoan ez du kontuan hartu hemen auzitan dagoena ez dela Gipuzkoako Foru Ogasunaren ikuskapen eskumenari lotutako entitate lotuek EZAAk izapidetutako balorazio prozeduran izan lezaketen parte-hartzea, baizik eta Foru Ogasunaren beraren parte-hartzea, gorago adierazitako baldintzetan.

10. Ez Ekonomia Itunean eta ez estatu edo foru araudian, ez da aurreikusi gatazka hau bultzatu duen kasua: Zerga administrazio bat baino gehiagoren ikuskapen-eskumenaren pean dauden entitate lotuen arteko eragiketen balorazioa; eta hutsune hori zeharo harrigarria da sozietate multzoak eta enpresen arteko loturak hain ohikoak diren mundu batean. Bi Administrazioak bat datoz hutsune hori badagoela esatean, baina hori onartzeak ez du biderik ematen, ez Gipuzkoako Foru Aldundiaren irizpenaren aldeko argudiorik ondorioztatzeko –honek hala badio ere–, ez eta irizpen horren aurkako ondorioz ateratzeko ere –EZAAk dioen bezala–; izan ere, irizpen hori bestelako kontsideraziotan oinarritua dago, gorago adierazi dugun moduan.

Lehen baieztatu dugunari jarraituz, Ekonomia Itunaren printzipio orokorrek, eragiketa lotuen balorazioan administrazio interesatuek elkar ez baztertzea exijitzen dute; hain zuzen ere, elkarlanean jarduteko exijitzen dute, balorazio-zuzenketek ezarpen bikoitza ekar ez dezaten. Lankidetza hori zertzeak elkarriketa eta informazio trukea eskatzen du, gerta litezkeen desadostasunak fede onez konpontzen saiatzeko. Hori da, gure iritziz, Gipuzkoako Foru Aldundiak aipatutako parte-hartzearekin lortu nahi duena; eta hori, aipatutako baldintzetan, onartu besterik ezin dugu egin. Lankidetza hori gauzatzeko, berez ez da prozedura xehatu bat behar, lehen ere adierazi dugun bezala, nazioartean ere ez baitago horrelakorik. Baina horrek ez du baztertzen Estatuak –espainiarrak, esaterako– adiskidetasunezko prozeduren Erregelamendu hori beren barne arauetan txertatu nahi izatea.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
16/2009	R8/2012	2012/07/02	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Ikuskatzeko eskumena. Eragiketa lotuen balorazioa

Hala eta guztiz ere, estatu mailan, 2007ko uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Zergak Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Erregelamenduak, 168. artikuluan arautzen ditu “Autonomia Erkidegoekiko ikuskapen koordinatuak”; eta prozedura hori, aztergai dugun kasua bezalakoetarako diseinatu ez badago ere, horrelakoetan Administrazioen arteko lankidetzaz zertzeko bidea izan liteke.

Dena den, aipatutako baldintzetan Gipuzkoako Foru Aldundiari parte hartzeko aitortzen diogun eskubideak ez du esan nahi Estatuko Administrazioa harekin akordio batera iristera behartua dagoenik. Obligazio hori ez da existitzen, halaber, nazioarteko adiskidetasunezko prozeduran ere (ELGAREN 2010eko Itun Ereduaren 25. artikuluari eginiko iruzkina, 37. paragrafoa). Hain zuzen ere, ELGAREN Eredua 2008an eguneratu zenean, horregatik sartu zen arbitraje prozedura, aldean artean adostasunik lortzen ez denerako. Transferentzia-prezioen doikuntzei buruz, barne esparruan Zerga administrazioen artean sortzen diren desadostasunak behin betiko konpontzeko ere, konponbideak legegintzan ezarri beharko liriteke.

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

EZAA eta Gipuzkoako Foru Aldundia, 1 ENTITATEAREN (IFZ) eta honekin lotuak dauden 2 ENTITATEAREN (IFZ) eta 3 ENTITATEAREN (IFZ) artean egindako eragiketen balorazioari buruzko informazioa elkarri ematera behartuak daudela; eta izan ditzaketen desadostasunak fede onez eta lankidetzaz printzipioari jarraituz konpontzen saiatu behar dutela, entitate horien osotasunean gehiegizko ezarpenik gerta ez dadin.